



**KARMELE CONTRERAS GOIKOETXEA, Tolosako Udaleko Behin-behineko Idazkaria.**

**NEUK ZIURTATUA:**

**Udalbatzak, bi mila hamazazpiko irailaren hogeita seian, Ohizko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:**

**3. Izenpe, SA.-k (Ziurtapen eta Zerbitzu enpresa) jaulkitako zerbitzu elektronikoak arautzeko hitzarmena.**

**3. Convenio para regular los servicios electrónicos emitidos por Izenpe, S.A. (empresa de certificación y servicios.)**

Administrazio elektronikoaren garapenean, funtsezkoa osagaia da herritarren identifikazio sistema.

Orain arte ezagutzen ditugun identifikazio sistemak, (ziurtagiri elektronikoa, DNI elektronikoa, gako operatiboa, etab.) zailtasunen bat izan dute herritarren artean erabilera aldetik modu zabalean inplementatzeko: dela informatika ezaguera izan beharra, dela administrazio bakoitzaren aurrean identifikazio sistema desberdina izatea, etab.

Une Honetan, IZENPE, S.A. ziurtagiri jaulkitzaile den aldetik landuta dauka identifikazio sistema berria: barka jokua eta pasahitza bidezkoa. B@kQ izeneko sistema, besteak beste, Gipuzkoako Udaletan eta Foru administrazioan inplementatua.

Hurrengo urratsa identifikazio sistema hau herritarren artean zabaltzea izango da. Eta horretarako IZENPE, S.A.k aukera eskaini dio Tolosako udalari bere bulegoetan ziurtagiri jaulkitzen laguntzeko, hitzarmen bidez harremanak arautuz. "ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA IZENPE, SA-K JAULKITAKO ZERBITZU ELEKTRONIKOAK ARAUTZEKO HITZARMENA"

Jaulkipen horren suposatuko duen lan gainkarga, herritarrentzat izango dituen abantailak eta Herritarrekiko Harremanak, Partaidetza eta Informazioaren Gizartea batzordeak 2017ko irailaren 20an jaulkitako diktamena, Udalbatzak, aho batez,

**ERABAKI DU**

**Lehenik:** Ziurtapen eta Zerbitzu enpresa IZENPE, SA.k jaulkitako zerbitzu elektronikoak arautzeko hitzarmena onartzea.

**Bigarren:** Erabakiaren honen berri ematea IZENPEri.

**Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Alkatearen onespenearekin, Tolosan, bi mila hamazazpiko urriaren hamaseian.**

O.E.  
ALKATEA

